

***EUSKADIKO  
TRIATLOI  
FEDERAZIOKO  
ANTIDOPING  
ARAUTEGIA***

## **AURKIBIDEA**

Orrialdea

I. KAPITULUA .- XEDAPEN OROKORRAK.....	
II. KAPITULUA .- ANTIDOPING BATZORDEA.....	
III. KAPITULUA .- DOPING SUBSTANTZIA ETA METODO DEBEKATUEN ZERRENDA...	
IV. KAPITULUA .-HELBURU TERAPEUTIKOEN ERABILERAREN ETA ERABILERA ADIERAZPENEN INGURUKO BAIMENAK.....	
V. KAPITULUA .- KOKAPENAREN DATUAK.....	
VI. KAPITULUA .- DOPING KONTROLAK.....	
VII. KAPITULUA .- LAGINEN PROZESU ANALITIKOA.....	
VIII. KAPITULUA .- PROBA OSAGARRIAK.....	
IX. KAPITULUA .-MEDIKAMENTUEN ETA OSAGARRIEN ERREGISTRO LIBURUA	
X. KAPITULUA .- DOPING ARLOKO ZIGORREN EZARPENERAKO PROZEDURA.....	
XI. KAPITULUA .- DOPING ARLOAREN INGURUKO BETEBEHARRAK.....	
XII. KAPITULUA .- DOPING ARLOKO DIZIPLINAZKO ERREGIMEN ZIGORTZAILEA.....	
XIII. KAPITULUA .- DOPING KONTROLAREN INGURUKO DATUEN TRATAMENDUA.....	
XEDAPEN GEHIGARRIAK.....	
XEDAPEN IRAGANKORRA.....	
XEDAPEN INDARGABETZAILEA.....	
AMAIERA XEDAPENAK.....	

## I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

### 1. Artikulua .-

1.- Arautegi honen xedeetarako, kiroleko dopinga kontsideratzen da kirolarien eta gainerako pertsonen zein erakundeen konplimendu eza edota arau-haustea, euren betebeharra izanik, Arautegi honetan eta/edo aplikagarriak diren Euskadiko dopingaren aurkako borrokaren arloko arautegi xedapenetan aurreikusi arauak urratzeagatik.

2.- Euskadiko Triatloi Federazioak emandako Euskadiko federazio lizentziaren jabe diren kirolari, pertsona eta erakundeek doping arauak urratzearen ala dagokion ez-egitearen berri izango dute, baita aplikatu ahal zaizkien kiroleko dopingaren inguruko substantzia eta metodo debekatuen zerrendaren berri ere.

### 2. Artikulua .-

Arautegi honen aplikaziorako eremu subjektiboa, Euskadiko Federazioak antolatu, sustatu ala baimendu kirol txapelketako eta jardueretako Euskadiko federazio lizentziaren jabe diren kirolari, pertsona eta erakunde guztiengana hedatzen da, ondorengo artikuluan xedatu eremu objektiboaren arabera.

### 3. Artikulua .-

Arautegi honen aplikaziorako eremu objektiboa autonomia eremuko kirol jarduera eta txapelketa federatuetan finkatzen da, horiek ofizialak izan ala ez.

### 4. Artikulua .-

1.- Euskadiko Federazioko lizentziaren jabe diren kirolariak behartuta daude, txapelketan zein honetatik kanpo, Federazioko Antidoping Batzordeak xedatu doping kontrolak eta proba osagarriak betetzera.

2.- Betebehar hori hedatzen da, era berean, kirolari ezberdinengana, zein doping arau-haustearen ondorioz euren kirol lizentzia gabe geratzean, zigorra betetzen aurkituko diren; eta, edozein kasutan, federazio lizentzia berriro erabilgarri izan baino lehen.

3.- Doping kontrolak gainditzeko betebeharra hainbat kirolarirengana hedatu ahal izango da, federazio lizentziaren jabe izatean eta hura ez berritzean, kirolaren praktika utzi ez dutenaren eta lizentzia eskuratu bitartean txapelketatik kanpo doping kontrolak egitea saihesten ahalegintzen ari direnaren ustea dagoenean.

4.- Euskadiko federazio lizentziaren titular oro eskumeneko federazio organoen eskumenekoa da, federazio lizentziaren eskatzailea ala titularra izatean jazotako ekintzen aurrean, baita dopingaren diziplinazko prozedura interesdunak Euskadiko federazio lizentzia jadanik erabilgarri izaten ez duenean hasten ala jarraitzen denean ere.

#### **5. Artikulua .-**

1.- Federazioko Antidoping Batzordeak agindutako doping kontrolen garapena, txapelketan zein honetatik kanpo, arlo berean eskumenak izango lituzkeen edozein lurralde eremuko beste hainbat agente publiko ala pribaturekin elkarlanean burutuko da.

2.- Euskadiko Federazioko lizentzia eskuratzeko gaitasungabetuko dira, dopingarekin loturiko arau-hausteengatik zigortuak izatean, dagokien zigorra konplitzen aurkitzen direnak.

3.- Txapelketa antolatzaileek, horiek ofizialak izan ala ez, Euskadiko Triatloi Federazio egutegikoak, debekatuko dute -beti eta kasu orotan- ospakizun horietan doping arau-hausteengatik zigorrak konplitzen aurkitzen diren kirolariek parte hartzea.

## **II. KAPITULUA ANTIDOPING BATZORDEA**

#### **6. Artikulua .-**

1.- Euskadiko Triatloi Federazioan antidoping organo bat jarriko da erabilgarri. Antidoping Batzordea kirol federazioko Zuzendaritza Batzordeak izendatuko du eta izendapen hori Batzar Nagusiak berretsiko du.

2.- Euskadiko Triatloi Federazioak esleitu Antidoping Batzordea Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko (EKFB-UFDV) antidoping organoarekin egokitu ahal izango da eta erakunde horrek zerbitzu hori Euskadiko kirol federazioentzat erabilgarri jarriko du.

#### **7. Artikulua .-**

Antidoping Batzordeari dagokio dopingaren prebentzioa eta kontrola zaintzea, bere funtzioak ondorengoak izanik:

- a) Doping kontrolen egutegia eratzea, txapelketan zein honetatik kanpo egin beharko den kontrol kopurua proposatuz.
- b) Federazio esparruan dopingaren kontrolerako eta prebentziorako kontrol programak eratzea eta zuzentzea, Banakako kontrol Planak martxan jartzea eta garatzea barne.

- c) Antidoping Arautegia eguneratzeko eta berritzeko proposamenak eratzea.
- d) Antidoping Arautegi honen garapenerako eta arautegi honen edukian islatzen diren dopinaren aurkako borrokaren eremuko jardueren garapen zuzenerako behar bezainbat dokumentuak eratzea.
- e) Derrigorrezko Erregistro Liburuaren erabiltzaileen jokatzeko modua ezartzea, Arautegi honetan aurreikusi medikamentuen eta osagarrien adierazpenari dagokionez, baita erregistro-liburu horien kontrola egiteko modua ere.
- f) Doping kontrolak arautegian aurreikusi bezala betetzen direla zaintzea.
- g) Dopingaren aurkako borrokan jarraitu beharrekotako protokoloa ezartzea eta bere kasuan, beharrezko prebentzio neurriak ezartzea.
- h) Federazio estamentu ezberdinetako beharrezko prebentzio, eguneratze, etengabeko heziketa eta aholku jarduera guztiak garatzea.
- i) Erantzuna ematea, bere eskumenen arabera, doping prebentzioaren ala kontrolaren inguruko autonomia, estatu eta nazioarteko organismoen eskakizunen aurrean.
- j) Kirol federazioa ordezkatzeko, hala badagokio, autonomia, estatu ala nazioarteko beste hainbat batzordetan ala organotan, hala nola parte hartzea eta kolaboratzea, bere kasuan, zientzia ospakizunetan.
- k) Dagokion jardueraren urteko Memoria eratzea.
- l) Presidenteak eta gainerako federazio organoek esleitu gainerako guztiak.
- m) Arautegi honetan jasotzen diren beste haiek ala bertan adierazietatik eratortzen diren beste batzuk.
- n) Arautegi honetako beste edozein alderdi interpretatzea, edozein egoera ezagutzea eta ebatzea zeinetan eduki erregulatzaileraren inguruko hutsegite berezi edota polemikaren bat aurkituko den, eta, orokorrean, arautegi honetan aurreikusi gabeko dopingaren aurkako borrokarekin loturiko auzi guztiak.

## **8. Artikulua .-**

1.- Antidoping Batzordea, Euskadiko Kirol Federazioen Batasuneko (EKFB-UFDV) Antidoping organoari dagokiona ala kirol federazioak berak ezarria, 1 ala 3 kideekin eratu ahal da. Antidoping Batzordeko kide oro Medikuntza eta Kirurgian Lizentziatua izan beharko da, Heziketa Fisikoaren eta Kirolaren Medikuntzan espezializatua. Antidoping Batzordea organo bildua izango balitz, kideetako bat Presidentea izango litzateke eta Batzordea ordezkatzeko luke.

2.- Antidoping Batzordea eratu gabe, bertan Idazkari bat aurkitu ahal dugu, dopinaren aurkako borrokaren arloan prestatua, organo horretako saiotara bertaratuko dena, ahotsarekin baina botorik gabe, aktak eratzeko eta dagokion dokumentazioa prestatzeko arduraduna izanik.

3.- Antidoping Batzordeko saiotara beste hainbat pertsona etorri ahal izango dira, kideak ez direnak, jorratuko diren hainbat esparruko ala arloko auzien inguruko kontsultak adituengana helarazteko beharra dela-eta.

## **III. KAPITULUA**

### **DOPING SUBSTANTZIA ETA METODO DEBEKATUEN ZERRENDA**

## **9. Artikulua .-**

Arautegi honetan aurreikusi eremuan aplikagarria izango da Eusko Jaurlaritzak debekatzen dituen doping substantzien eta metodoen zerrenda; eta hori erabilgarri ez dagoenean, une orotan indarrean dagoen Estatuko Kirolen Goi Mailako Kontseiluak argitaratua.

## **IV. KAPITULUA HELBURU TERAPEUTIKOEN ERABILERAREN ETA ERABILERA ADIERAZPENEN INGURUKO BAIMENAK**

## **10. Artikulua .-**

1.- Helburu terapeutikoen baimena (AUT) indarrean dagoen erreferentziazko zerrendako eta helburu terapeutikoetarako substantziak ala metodoak erabiltzeko baimena da; bere erabilera, aurkako kasuan, arau-haustea da, eta arautegi honetan aurreikusiaren arabera aplikagarriak diren arautegiko xedapenetan adierazi baldintzen eta prozeduren arabera emango da.

2.- Substantzia debekatuaren ala metodo debekatuaren erabilera eskatzen duen egoera patologiko dokumentatua eta egiaztatua jasaten duten Euskadiko federazio lizentziaren jabe diren kirolariek, helburu terapeutikoak izango dituen baimena (AUT) eskuratu behar dute.

## **11. Artikulua .-**

Espresuki aurreikusten diren substantzia eta metodo debekatu horien zerrendako hainbat substantziaren kasuan, substantzia horien Erabilera Adierazpen soila eskatuko da.

## 12. Artikulua.-

1.- Euskadiko Antidoping Agentzia izango da kirolariek aurkezten dituzten AUT eskaerak bideratzeko eta ebazteko eskumeneko erakundea, arlo horretan aplikatu litezkeen arautegi honetako ala gainerako arautegi xedapenen esparruan.

2.- Euskadiko Antidoping Agentzia eta Erabilera Terapeutikoa Baimentzeko Euskadiko Batzordea (COVAUT) eratu eta martxan jarri arte, bere eskumenak Federazioko Antidopin Batzordeari dagozkio, arautegi honetako Bigarren Xedapen Iragankorrean aurreikusari jarraiki.

## 13. Artikulua .-

1.- Arautegi honetan arautu antidoping sistemaren eta Euskadiko Triatloi Federazioko eskaeraren arabera egiten diren doping kontrolen esparruan baliodunak eta eraginkorrak izango dira, xede guztietarako, estatu mailan homologatu Euskadiko federazio lizentziaren jabe diren kirolariengana helarazitako AUT baimenak, ondorengoan aldetik:

a) Kirol Kontseilu Goreneko CAUT,  
b) Nazioarteko kirol erakundetako CAUT, zein edozein kasutan Estatuko Antidoping Agentzian erregistratuta aurkituko diren, Estatu eremuko bere xedeetarako.

2.- Organismo horietan erregistratu AUT horien balioari eta eraginkortasunari dagokienez, era berean erabilera adierazpenetara hedatu ahal izango da, horiek beharrezkoak direnean, aplikagarria den kiroleko substantzia eta metodo debekatuen zerrendan aurreikusari jarraiki.

3.- Kirol agintaritza, erakunde ala instantzia batek Euskadiko federazio lizentziaren jabe den kirolari bati AUT bat eman zaionean -aurreko zenbakian adierazien artekoa-, kirolariak erregistratzeko kopia bat igorri beharko du Euskadiko Antidoping Agentziara (erakunde hori eratu bitartean, erregistratzeko igorpena Euskadiko Triatloi Federazioko Antidoping Batzordeari egingo zaio). Igorpen hori, baimen hori indarrean jartzen hasten den unean egin beharko da. Igorpen zeregin horren inguruan adierazia halaber erabilera adierazpenetara hedatu ahal izango da.

4.- Euskadiko Triatloi Federazioak ez ditu onartuko behar bezala erregistratu gabeko AUT ala erabilera adierazpenak, bere izapide, ebazpen ala inskripzioaren inguruko akatsa ala atzerapena federazio eta/edo administrazio arduradunen funtzionamenduagatik gertatuko zatekeenean eta kirolariaren jokaerarekin ala jarrerarekin inolako zerikusirik izango ez lukeenean izan ezik.

5.- Kirol Federazioan aurkitzen diren AUT ala erabilera adierazpenen inguruko datuak ezeztatu egingo dira, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatuaren arabera.

6.- AUT bakoitzaren iraungitze-data zehaztuko da. AUT bakoitza dagokion epearen arabera iraungiko da. Kirolaria izango da bere AUT berritza eskatzeko arduraduna, horrela, dagokion organismoak erabakia hartu ahal du indarrean dagoen AUT horren iraungitze-data iritsi aurretik.

#### **14. Artikulua .-**

AUT eta erabilera adierazpenak aurkeztu behar dituzten kirolariek probak ospatu aurretik jakinarazi beharko dute substantzia ala metodo debekatuarekin tratatuak izan direla, jarraian balizko larrialdiko ala atzeraeraginezko osasun tratamendutan aurreikusi mekanismoaren bidez AUT eskaerak ala dagozkion erabilera adierazpenak aurkezten badituzte ere.

### **V. KAPITULUA KOKAPENAREN DATUAK**

#### **15. Artikulua .-**

1.- Euskadiko lizentziaren jabe diren kirolarien adostasuna beharrezkoa da ondorengo ataletan xedatuaren inguruan, Antidoping Batzordeak xede horretarako ezarri datu-orria betetzean bere ohiko kokapenaren berri izateko datuak emanaz. Talde kirolen kasuan, kirolarien erakundeek zeregin hori bere gain hartuko dute.

2.- Kirolari ala erakunde horiek Antidoping Batzordeari emandako informazioaren fidagarritasunaren zein erabileraren arduradunak dira, txapelketatik kanpo doping kontrolak egin ahal izateko xedeetarako.

#### **16. Artikulua .-**

1.- Kirolariek eta erakundeek, talde kirolen kasuan, Banakako Kontrolen Planaren barne daudenek, euren ohiko kokapenaren aldizkako informazioa eman beharko dute, horretarako, Antidoping Batzordeak xede horretarako onartu datu-orria beteko dute, edozein kasutan ondorengo informazio minimoa mantenduz:

a) Posta helbidea, zeinetan kirolariak ala erakundeak korrespondentzia jasoko duen, doping kontrolarekin loturiko jakinarazpenen xedeetarako.

b) Kirolariaren ala erakundeko lege ordezkariaren baimenari dagokion klausula, zeinen arabera datu horiek beste antidoping organizazio batzuetara igorriko diren.

c) Ohiko helbidetik hiru egun jarraian baino gehiago falta izatean, ez egote horietan, bere egoitzaren ala kokapenaren helbidea emango da.

d) Kirolariaren ala taldearen entrenamendu tokien izena eta helbidea, baita bere entrenamendu-egutegia eta doping kontrolak egin ahal izateko beharrezko eskuragarritasunaren inguruko ordutegi minimoa ere.

e) Txapelketa egutegia, lehiatzeko toki eta data zehatzekin, txapelketa mota barne.

2.- Arau honetan aipatu datu-orriko datuen erabilera eta tratamendua Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari dagozkio.

3.- Antidoping Batzordeak mekanismo bat ezarriko du, zeinen arabera kirolariek ala erakundeek emandako informazioa behar adina aurretiaz eguneratu ala aldatu ahal izango duen, kokapenaren betebeharraren helburua ez konprometitzeko helburuari jarraiki.

## **VI. KAPITULUA DOPING KONTROLAK**

### **17. Artikulua .-**

1.- Doping kontrolen materialarekin loturiko alderdi guztietan aplikatu ahal izango dira arlo horretan indarrean dauden Euskadiko arautegi xedapenak edota, hori izan ezean, indarrean dauden Estatuko arautegi xedapenak.

2.- Arautegi honetako aginduetan aurreikusi arauak direla-eta, doping kontrolak egiteko orduan aintzat hartu beharreko alderdiak dira:

- a) Doping kontrol mota bakoitza egiteko epeak, gaueko atsedean orduak barne.
- b) Doping kontrol motak.
- c) Doping kontroletako langile-talde prestatua.
- d) Kirolarien hautaketa.
- e) Doping kontrol-eremuak.
- f) Kirolari batengana doping-kontrolaren informazioa helaraztea.
- g) Laginak jasotzeko prozesua garatzea.
- h) Laginak jasotzea eta ontziratzea.
- i) Odol laginak ateratzeko kontrolak.
- j) Laginak zaintzea eta garraiatzea.
- k) Laginak laborategira igortzea eta entregatzea.
- l) Eta, oro har, doping kontrolak martxan jartzeko eta garatzeko prozesuekin loturiko guztia.

## **VII. KAPITULUA LAGINEN PROZESU ANALITIKOA**

### **18. Artikulua .-**

1.- Laginen prozesu analitikoarekin loturiko alderdi guztietan aplikatu ahal izango dira arlo horretan indarrean dauden Euskadiko arautegi xedapenak, eta horiek izan ezean, indarrean dauden Estatuko arautegi xedapenak.

2.- Arautegi honetako aginduetan aurreikusi arauak direla-eta, laginen prozesu analitikoarekin loturiko alderdiak dira:

- a) Kiroleko substantzia eta metodo debekatuak hautemateko laginak aztertzekeko laborategiak; Munduko Antidoping Agentziaren (AMA-WADA) nazioarteko bermearekin eta Euskadiko Autonomia Erkidegoko agintaritzaren, ala hori ezean, Estatuaren onarpenarekin eta homologazioarekin kontaktzen dutenak.
- b) Laginak aztertzekeko prozedurak.
- c) Emaizten bidalketa ala jakinarazpena.

## **VIII. KAPITULUA PROBA OSAGARRIAK**

### **19. Artikulua .-**

1.- Antidoping batzordeak odola aztertzekeko proba osagarriak egin ahal izango ditu; bere emaitzak antidoping kontrolak ebazteke erabili ahal izango dira, txapelketan ala honetatik kanpo egin ahal izango diren kontroletan. Proba osagarri horiek kirolariari egingo litzaiokeen edonolako doping kontrolak alde batera utzi gabe egingo dira.

2.- Antidoping Kontrolak Euskadiko federazio lizentziaren jabe den edozein kirolariari eskatu ahal izango zaizkio, edozein unetan proba osagarria egiteke odola atera behar izanik. Horrela, kirolarientzat derrigorrezkoa da proba osagarri horiek egitea.

3.- Kirolari batek proba osagarria egin nahi ez duenean, dopingaren inguruko bere betebeharrak ez dituela konplitzen kontsideratuko da.

### **20. Artikulua .-**

1.- Odola ateratzeko proba osagarriak egin ahal izango dira:

- a) Aurretiko abisurik jabe, hau da, Antidoping Batzordeak esleitu langileak bertaritzen direnean, entrenamendu ala txapelketa tokira, zeinetan kirolaria aurkituko den, odola ateratzeko.
- b) Aurretiko abisuarekin, hau da, Antidoping Batzordeak kirolariari toki eta une jakin batean odola atzeratzeko eskatzen dionean.

2.- Odola atzeratzeko zeregina, flebotomista behar bezala bermatuari dagokio.

3.- Proba osagarria egitea dagokion kirolaria berehala eskuragarri jarriko da odola atzeratzeko. Entrenamendutan proba osagarriak egingo balira, kirolariari baimena emango litzaioke, hala nahi izango balu, horiek amaitzeko.

- 4.- Proba osagarriak egiterakoan, kirolariek aukera izango dute laginak eserita ala etzanda atera ahal izateko.
- 5.- Kirolariak, proba osagarriak egiteko unean, aurretik egin izan zaion edozein odol transfusioren berri eman beharko du.
- 6.- Kirolariari hartuko litzaizkiokeen odol laginak Antidoping Batzordeak esleitu laborategietan aztertuko lirateke.
- 7.- Antidoping Batzordeari dagokio eginiko proba osagarriak direla-eta aztertu beharreko balio ala parametro hematologikoak eta profil hormonalak ezartzea.
- 8.- Proba osagarrien ondorioz lorturiko laginak Euskadiko Triatloi Federaziora igorriko dira; erakunde horretan doping kontrolaren xedeetarako soilik erabiliko dira.
- 9.- Odola ateratzeko proba osagarria egitea dagokion kirolariak idatziz eskatu ahal izango dio Antidoping Batzordeari aztertu balioen inguruko informazioa.

## **IX. KAPITULUA**

### **MEDIKAMENTUEN ETA OSAGARRIEN ERREGISTRO LIBURUA**

#### **21. Artikulua .-**

- 1.- Antidoping Batzordeak hautatuko ditu kirolariak hala nola erakundeak, zein behartuta egongo diren Erregistro -Liburua eramatera, edozein agindu ala administrazio farmakologiko dakartzana, medikamentuena ala osagarriena, produktu dietetikoena ala agindutako beste edozein substantziarena, kirolariaren ala bere klubeko zein taldeko osasun zerbitzuen aldetik ala bestelako medikuen aldetik.
- 2.- Antidoping Batzordeak erabakiko ditu, era berean, aipatu Erregistro – Liburu hori eramateko aurkezpenarekin eta prozedurekin loturiko alderdi formal guztiak. Edozein kasutan, Erregistro – Liburuaren atal bakoitzean azaldu beharko dira, aginduz gainera, data, kirolariaren eta mediku agindu emailearen sinadura.
- 3.- Aipatu Erregistro – Liburuko orri guztietan Euskadiko Triatloi Federazioko zigilua ezarriko da. Liburu hauek Euskadiko Triatloi Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.
- 4.- Kirolariek eta kirol erakundeek jakinarazi beharko diote, gehienez 7 laneguneko epean, federazioko antidoping organoari, Erregistro – Liburuaren galera eta/edo hondamen justifikatua.

5.- Arautegiko artikulua honen arabera Erregistro – Liburua eramatera behartuta dauden pertsonak ala erakundeak halaber behartuta daude hau federazio organoaren aurrean aurkeztera, berrikustea beharrezkoa izaten denean.

## **X. KAPITULUA**

### **DOPING ARLOKO ZIGORREN EZARPENERAKO PROZEDURA**

#### **22. Artikulua .-**

1.- Prozedura zigortzailea, doping arloko diziplinazko organoak ofizioz irekiko du:

a) Doping Kontrolerako Laborategiak azterketa baten behin-betiko aurkako emaitzaren berri ematen duenean eta aurkikuntza hori behar bezala emandako ala erregistratutako AUT ala erabilera adierazpen batean babesten ala justifikatzen ez denean.

b) Salaketaren berri izatean, eskumeneko organoen eta erakundeen jakinarazpena jasotzean, bereziki antidoping kontrolen arloan esku hartzen dutenena, doping arloko behin-behineko arau-haustea eratuko luketen balizko jarreraren inguruan.

2.- Diziplinazko espedientearen irekitzea, doping arloko diziplinazko organoak jakinaraziko dio:

a) Interesdunari eta, bere kasuan, dagokion klubari,

b) Euskadiko Antidoping Agentziari (eta erakunde hori indarrean dagoen artean, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari) eta gainerako erakundeei, publikoak ala pribatuak, bere kasuan informatuak izan beharko lirakekeenak, kirol federaziotan aplikagarriak diren eta indarrean dauden arautegiko xedapenen arabera.

c) Laborategiari, zeinetan azterketa burutuko zen, adieraziaz, eragina jasan duena identifikatu gabe, balizko arau-haustearen preskripzio data; epe horretan kontserbatu beharko dira, edozein kasutan, eskuratu laginak eta azterketak.

#### **23. Artikulua .-**

1.- Diziplinazko espedientea irekiko duen probidentziak instruktore baten izendapena ekarriko du, Zuzenbidean Lizentziatua, federazioko lehen ala bigarren instantziako diziplinazko organoko kidea izan litekeena (ala ez).

2.- Instruktoeari aplikatuko zaizkio administrazio prozedura komuna erregulatzeko arautegi xedapenetan aurreikusi abstentzio eta ezespen arrazoiak.

3.- Ezespen eskubidea bete ahal izango dute interesdunek bi (2) lanegunen buruan, izendapenaren probidentzia ezagutzen den hurrengo egunetik aurrera kontatuz. Diziplinazko organoak ebatziko du ezespena planteatzen duen idatzia aurkezten denetik hiru (3) lanegunen buruan, planteatuko litzatekeen ezespeneren inguruan.

4.- Prozedura abiatzean, doping arloko diziplinazko organoak ala instruktoreak hartu ahal izango dituzte, une orotan, egokitzen jotzen dituzten behin-behineko kautelazko neurriak, aplikatu litekeen ebazpenaren eraginkortasuna bermatzeko.

5.- Ezespen epea amaitzean, instruktoreak kargu-pleguaren berri emango du bi (2) lanegunen buruan, interesdunari hamar (10) lanegunen epea emanez, alegazioak egiteko eta dagozkion probak aurkezteko.

6.- Alegazioen idatzia eta frogen proposamena jasotzean, instruktoreak behar bezala ebatziko du horiek onartzearen eta proposatuko liratekeen proben edota ofizios betekizun hoberako dagozkion praktikaren inguruan. Proposamenen praktikarako epea hamar (10) lanegunekoa izango da.

7.- Diziplinazko organoak eta instruktoreak txostenak eskatu ahal izango dizkie mediku ala teknikari adituei, horiek bideratzeko epea eta proben praktikarena komuna izanik.

8.- Probak praktikatzean eta txostenak igortzean, instruktoreak idatziko du hiru (3) lanegunen buruan ebazpen proposamena, interesdunengana helaraziko duena, horretarako hamar (10) lanegunen buruan entzute izapidearen aukera emanez.

9.- Instruktoreak doping arloko diziplinazko organora igoko du espedientea eta dokumentazio guztia, entzute izapidearen alegazioekin batera, alegazio horiek jaso eta hurrengo egunean edota emandako epea amaitzean, alegazioak aurkeztu izango ez balira.

## **24. Artikulua.-**

1.- Doping arloko diziplinazko organoaren ebazpenak amaiera jarriko dio diziplinazko prozedurari, interesdunek planteatu auzi guztiak eta espedientetik eratorri auziak ebazteko, praktikatu proben balioztapena, jardueren finkapena eta erantzukizunaren garapena kontuan hartuta; adierazteko aukerarekin erantzukizuna, pertsona arduraduna ala arduradunak, eginiko arau-haustea ala arau-haustea eta inposatzen den/diren zigorra ala zigorrak.

2.- Preskripzio, iraungipen ala erantzukizunetik libratzeko arrazoiak ematean, ebazpenak agerian jarriko ditu eta hitzartuko du, bere kasuan, jarduerak artxibatzea.

## **25. Artikulua .-**

Doping arauen inguruko behin-behineko arau-hausteen espedienteak federazioko diziplinazko organoak ebatziko ditu, gehienez bi hilabeteko epean, laborategian lorturiko azken emaitzaren jakinarazpen frogagarriaren datatik kontatzen hasita edota, bere kasuan, balizko arau-haustearen berri izan den datatik kontatzen hasita. Epe hori amaitzean, espedienteak ebaztea amaitu gabe, dagokion izapidea edonolakoa dela ere, eskumena Euskadiko Antidoping Agentziari dagokio, aurreikusi izapideak amaitu eta ebatzi arte jarraitu ditzan. Hala ere, eta espediente zehatzaren zirkunstantziak direla medio, Euskadiko Antidoping Agentziak aurreko ataleko epea luzatu ahal izango du, betiere epearen iraungipenari dagokionez aurretiko eskaera espresuki adierazten denean.

## **26. Artikulua .-**

Doping arloko diziplinazko prozedura gehienez sei hilabeteko epean amaitu beharko da, prozedura irekitzeko hitzarmena egiten denetik. Ebazteko aipatu gehieneko epearen amaierak, espresuki ebazpenik jakinarazi gabe, prozeduraren iraungipena ekarriko du. Iraungipenaren adierazpena ofizioz ala interesdunaren eskaeragatik agindu ahal izango da, eta jardueren artxibatzea ekarriko du.

## **27. Artikulua .-**

Prozedura bati amaiera ematen dion doping arloko diziplinazko organoak agindutako ebazpen oro helaraziko zaio interesdunari zein Euskadiko Antidoping Agentziari (eta erakunde hori eratu artean, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzari), hala nola, bere kasuan informatuak izan beharko lirartekeen gainerako erakundeei, aplikagarriak diren arautegi xedapenen arabera edota ebazpen horietan xedatuaren eraginak adieraziaren arabera.

## **28. Artikulua .-**

1.- Doping arloko prozedurak federazioko egoitzan gauzatuko dira, instantzia bakarrean, lehen instantziako kirol diziplinazko organoaren aurrean, zeinek doping arloko eskumeneko diziplinazko organoaren egoera bere gain hartuko duen, federazio egoitza horren barruan inolako errekurtsorik jaso ahal izan gabe, ohikoa ala hautazkoa izanik. Bere izapidea lehentasunezkoa da, ezarri epeak betetzeko helburuarekin.

2.- Eskumeneko diziplinazko organoek agindu zigorrak berehala beteko dira, ezartzen den behin-behineko errekurtsioa ezagutu behar duenak bere eternaldia erabakitzen duenean izan ezik.

## **29. Artikulua .-**

Euskadiko Triatloi Federazioko doping arloko diziplinazko organoak agindu ebazpenen administrazio esparruko berrikustea Euskadiko Kirol Justiziaren Batzordearen aurrean egingo da. Berrikustea eskatzeko epea hamabost egunekoa izango da, jakinarazpenaren hurrengo egunetik kontatuz. Epe hori amaitzean, dagokion errekurtsioa ezarri gabe, ebazpena irmoa bihurtuko da.

## **XI. KAPITULUA DOPING ARLOKO BETEBEHARRAK**

## **30. Artikulua .-**

Kluben eta taldeen betebeharrak dira:

- a) Antidoping Batzordeari jakinaraztea dagokion medikuaren identitatea zein haren behin-behineko ordezkorena.
- b) Antidoping Batzordeak igorritako informazio guztia bere hartzaileari entregatzea, konfidentzialtasuna mantenduz.
- c) Erregistro – Liburuan behar bezala erregistratzea edozein preskripzio ala administrazio farmakologiko, medikamentuena zein osagarriena, produktu dietetikoena edota klubeko osasun zerbitzuek ala honetatik kanpoko medikuek kirolariari agindutako beste edonolako substantziarena.
- d) Antidoping Batzordeari jakinaraztea taldeen kokapenerako datuak, txapelketatik kanpo kontrolak egin ahal izateko.
- e) Doping kontrolaren eremua erabilgarri izatea, doping kontroletako laginak jasotzeko, indarrean dagoen lege arautegiari jarraiki.
- f) Dopingarekin loturiko dokumentazio guztia zaintzea bermatzen duten beharrezko baliabideekin kontatzea eta konfidentzialtasuna mantentzea.
- g) Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, doping kontrolaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.

## **31. Artikulua .-**

Kirolarien osasun zerbitzuen eta klubetako betebeharrak dira:

- a) Doping arloan indarrean dagoen arautegi zorrotza ezagutzea eta aplikatzea.
- b) Dagokion klubeko Erregistro – Liburuan zaintzea eta erregistratzea edozein preskripzio ala administrazio farmakologiko, medikamentuena zein osagarriena, produktu dietetikoena edota klubeko osasun zerbitzuek ala honetatik kanpoko medikuek kirolariari agindutako beste edonolako substantziarena.
- c) Erregulaziotan ezarri moduen eta epeen arabera eskatzea Erabilera Terapeutikorako Baimena, farmakoak agintzeko beharrezkoa izaten denean eta kirolariek hala onartzen dutenean. Era berean, erabilera adierazpena eskatzen duten preskripziotarako prozedura jarraitzea.
- d) Doping kontrolaren arloan dagokion informazio eta dokumentazio guztiaren konfidentzialtasuna mantentzea.
- e) Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, doping kontrolaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.

### **32. Artikulua .-**

Euskadiko Triatloi Federazioko osasun sailaren edota, hura izan ezean, erakunde horretako zuzendaritza teknikoaren ala kirol zuzendaritzaren betebeharrak dira:

- a) Antidoping Batzordeari jakinaraztea dagokion medikuaren identitatea zein haren behin-behineko ordezkioarena, Euskadiko selekzioaren kontzentrazioen eta/edo txapelketen hala nola denboraldi bakoitzaren aurretik.
- b) Antidoping Batzordeak igorritako informazio guztia dagokion hartzaileari entregatzea.
- c) Dagokion klubeko Erregistro – Liburuan zaintzea eta erregistratzea edozein preskripzio ala administrazio farmakologiko, medikamentuena zein osagarriena, produktu dietetikoena edota klubeko osasun zerbitzuek ala honetatik kanpoko medikuek kirolariari agindutako beste edonolako substantziarena.
- d) Antidoping Batzordeari jakinaraztea taldeen kokapenaren datuak, txapelketatik kanpo kontrolak egin ahal izateko.
- e) Dopingarekin loturiko dokumentazio guztia zaintzea bermatzen duten beharrezko baliabideekin kontatzea eta konfidentzialtasuna mantentzea.
- f) Antidoping arloan indarrean dagoen arautegia ezagutzea eta zorrozki aplikatzea.
- g) Erregulaziotan ezarri moduen eta epeen arabera eskatzea Erabilera Terapeutikorako Baimena, farmakoak agintzeko beharrezkoa izaten denean eta kirolariek hala onartzen dutenean. Era berean, erabilera adierazpena eskatzen duten preskripziotarako prozedura jarraitzea.
- h) Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, doping kontrolaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.

### **33. Artikulua .-**

Kirolarien betebeharrak dira:

- a) Doping kontrolaren arloan indarrean dagoen oinarritzko arautegia ezagutzea.
- b) Txapelketan zein txapelketatik kanpo doping kontrolak egitea, baita dagozkion gainerako proba osagarriak ere.
- c) Medikamentuak ematen dizkionari eskatzea, agindu hori idatziz azaltzeko medikuaren sinadurarekin dagokion Erregistro - Liburuan.
- d) Klubeko ala Euskadiko selekzioko medikuarekin edota Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, dopingaren aurkako borrokaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.
- e) Antidoping Batzordeari kokapenaren datuak jakinaraztea, txapelketatik kanpo dagozkion kontrolak egin ahal izateko.
- f) Antidoping arloan indarrean dauden erregulaziotan ezarri moduen eta epeen arabera eskatzea Erabilera Terapeutikorako Baimena, farmakoak agintzeko beharrezkoa izaten denean. Era berean, erabilera adierazpena eskatzen duten preskripziotarako prozedura jarraitzea.

g) Ahalik eta arduratsuenaz izatea, hartzen duen substantzietan kirolean debekatutako osagairik ez ekartzea edota aplikatzen zaion metodoen bat erreferentziazko doping zerrendaren barne ez egotea zainduz.

#### **34. Artikulua .-**

Epaile – arbitroen ardurak dira:

- a) Doping kontrolaren arloan indarrean dagoen arautegia ezagutzea eta errespetatzea.
- b) Laginak jasotzeko taldeko kideekin kolaboratzea eta txapelketan eginiko doping kontroletan aipatu taldeko arduradunaren instrukzioak betetzea.
- c) Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, doping kontrolaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.

#### **35. Artikulua .-**

Ospakizunak antolatzen dituzten pertsonen eta erakundeen betebeharrak dira:

- a) Doping kontrolaren arloan indarrean dagoen oinarritzko arautegia ezagutzea
- b) Laginak jasotzeko taldeko kideekin kolaboratzea eta txapelketan eginiko doping kontroletan aipatu taldeko arduradunaren instrukzioak betetzea.
- c) Doping kontrolaren eremua erabilgarri izatea, doping kontroletako laginak jasotzeko, indarrean dagoen lege arautegiari jarraiki.
- d) Txapelketetan, edozein lurralde eremuko kirol agintariak ala federazioek inposatu doping arauak urratzeagatik zigorrak betetzen aurkitzen diren kirolarien ala taldeen presentzia debekatzea.
- e) Antidoping Batzordearekin kontsultatzea, doping kontrolaren arloan sortzen zaizkien zalantza guztiak.

## **XII. KAPITULUA DOPING ARLOKO DIZIPLINAZKO ERREGIMEN ZIGORTZAILEA**

#### **36. Artikulua .-**

1.- Kirolariak organismoan debekatutako substantziarik ez sartzeaz arduratuko dira, horrela, bere organismoan horien presentzia antzematean arduradunak izango dira. Ardura maila diziplinazko erregimenean ebatziko da eta Arautegiko kapitulu honetan xedatua izango da.

Betebehar honen konplimendu ezak erantzukizunak eskatzera eta Arautegiko kapitulu honetan aurreikusi diziplinazko neurriak hartzera darama.

2.- Kirolariak, bere entrenatzaileak, medikuek ala osasun langileek hala nola kirol klubek eta taldeek erantzun beharko dute ez konpliztean eskumeneko organotan kirolariaren gaixotasunen inguruko informazioa, dagozkion osasun tratamenduak, tratamenduaren helmena eta arrazoia jakinarazteko betebeharra, datu horien erabilera baimenduta dagoenean. Era berean, erabilera terapeutikorako eta erabilera adierazpenak bideratzeko baimenak

lortzeko eskakizunak ez konplizteagatik ala urratzeagatik erantzun beharko dute.

3.- Kirolariek, bere entrenatzaileek hala nola kirolariari dagozkion kirol klubek eta taldeek, kirolarien ohiko kokapenaren arloan inposatu betebeharren konplimendu ezagatik erantzun beharko dute.

4.- Kirolariek Arautegi honetan aurreikusi proba osagarrien arloan inposatzen diren betebeharren konplimendu ezagatik erantzun beharko dute.

5.- Kirolariek, medikuek eta osasun langileek hala nola kirol klubek eta taldeek Arautegi honetan aurreikusi medikamentuak eta osagarriak Erregistro –

Liburuan behar bezala adierazteko betebeharren konplimendu ezagatik erantzun beharko dute.

### **37. Artikulua .-**

1.- Arau-hauste oso larriak kontsideratzen dira:

a) Aurreko artikuluko 1. atalean adierazi betebeharren konplimendu eza, bidea emango duena substantzia debekatu bat ala bere metabolitoak edota markatzaileak azaltzeko, kirolari baten lagin fisikoetan;

b) kirolean debekatutako ala baimendu gabeko substantzien ala metodoen erabilera ala kontsumoa;

c) erresistentzia ala kontrako jarrera, justifikaziorik gabea, doping kontrolak egiteko orduan, txapelketan zein honetatik kanpo, eta proba osagarriak egiteko orduan, eskumeneko organoek ala pertsonen hala eskatzen dutenean; edota oztopoak jartzea, axolagabekeria, luzamendu desegokia eta gainerako jarrerak, egitezko ala ez-egitezko jarrerak direla medio, Antidoping Batzordeak adierazi doping kontrolaren zein errepresioaren eskakizunak ala prozedurak artatzea eragotziko dutenak.

d) aurreko artikulua 3. atalean adierazi kirolariaren ohiko kokapenaren betebeharraren eta txapelketatik kanpo kontrolak egiteko kirolarien kokapen eta eskuragarritasun eskakizunen konplimendu eza errepikatzea;

e) aurreko aginduaren 2. atalean adierazi erabilera terapeutikoaren eta erabilera adierazpenen inguruko betebeharren konplimendu eza, hala nola derrigorrezkoa litzatekeen osasun preskripzioen Erregistro – Liburua eramateko betebeharra urratzea.

f) doping kontrol eta errepresio prozeduretako edozein elementu aldatzea, faltsutzea ala manipulatzea;

g) kirolean debekatutako ala baimendu gabeko substantziak eskuragarri izatea edota metodoak erabiltzea, bere administraziorako ala banaketarako erabilera terapeutikoaren ala erabilera adierazpenaren baimenarekin kontatzen ez denean, edota substantzien, baliabideen ala metodoen bolumena ala kopurua

gehiegizkoa ala desproporzionatua izaten denean, osasun helburuekin zein terapeutikoekin administratzeko ala aplikatzeko;

h) kirolariengana kirol praktikan arautegiaren aurkakoak edota debekatuak diren substantziak ematea, eskaintzea, erraztea edota hornitzea ala metodoak erabiltzea;

i) substantzia ala metodo debekatuak ala arautegiaren aurkakoak erabiltzeko baldintzak sustatzea, eragitea, erraztea ala bultzatzea edota doping kontrolaren arloan debekatutako produktuak ala metodoak erabiltzeko baldintzak ala kirolarientzat kirolean baimendu gabeko substantzia ala metodo debekatuak eskuragarri jartzea helburutzat duen beste edonolako jarrera;

j) kolaborazioa ala esku hartzea, egitezko ala ez-egitezko jarrerak direla medio, arautegiak debekatzen dituen metodoak edota dopingaren aurkako arautegia urratzen duten beste edonolako jarrera praktikan jartzeko.

2.- Arau-hauste larriak kontsideratzen dira:

a) arautegi honetako aurreko artikulua 3. atalean adierazi betebeharren konplimendu eza eta txapelketatik kanpo kontrolak egiteko kirolarien kokapenaren eta eskuragarritasunaren inguruko eskakizunak urratzea, errepikatzen direnean izan ezik, kasu horretan arau-hauste oso larriak kontsideratuko baitira;

b) aurreko 1. atalaren a), b), e) eta g) hizkien arabera deskribatu jarrerak, dagozkien esparru juridikoan larritasun urriagoko substantzien ala metodoen bidez eragina ala helburu zehatza bilatzen dutenak, errepikatzen direnean izan ezik, kasu horretan arau-hauste oso larriak kontsideratuko baitira;

c) federazio lizentziarik edota baliabide baliokiderik gabe aurkitzen diren pertsonak ala erakundeak osasun jarduerak egiteko kontratatzea, esleitzea ala hautatzea, baldintza hori jarduera horietan ezinbestekoa izaten denean; hala nola aipatu jarduerak gauzatzea, federazio lizentziarik ala baliabide baliokiderik gabe, edota eskuratuko zatekeena eskuragarri izan gabe.

### **38. Artikulua .-**

Kirolariek ondorengo zigorrak jasango dituzte:

a) 37. artikulua 3. ataleko a), b), c), d), e), f), g) eta j) hizkien arabera aurrekusi arau-hauste oso larriengatik federazio lizentzia baliogabetzeko ala kentzeko zigorrak inposatuko dira, bi eta lau urte bitarteko epean eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isuna. Jarrera horiek bigarren aldiz errepikatzean, zigorra federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

b) 37. artikulua 3. ataleko h) eta i) hizkien arabera aurrekusi arau-hauste oso larriengatik, federazio lizentzia baliogabetzeko ala kentzeko zigorrak inposatuko dira, bi eta lau urte bitarteko epean eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isuna.

c) Arau-haustea bigarren aldiz errepikatzean, zigorra federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da,

arautegi honetan aurreikusi doping arloko zigorren inposaketarako irizpideari jarraiki.

d) 37. artikulua bigarren atalean aurreikusi arau-hauste larriengatik ondorengo zigorra ezarriko da: ohartarazpen publikoa, federazio lizentzia hiru hilabete eta bi urte bitarteko epean baliogabetzea edota, bere kasuan, 1.500 eta 3.000 euro bitarteko isuna. Lehen aipatu legez kontrako arau-hausteren bat bigarren aldiz egitean, jarrera hori arau-hauste oso larritzat hartuko da eta federazio lizentzia kentzeko ala baliogabetzeko zigorren aplikaziorako eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isunaren ezarpenerako bidea emango du.

e) Hirugarren arau-haustea egitean, zigorra federazio lizentzia betiko kentzean datza eta, bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da, arautegi honetan aurreikusi doping arloko zigorren inposaketarako irizpideari jarraiki.

### **39. Artikulua .-**

Klubek eta taldeek ondorengo zigorrak jasango dituzte:

a) Arautegi honetako 37. artikulua lehenengo atalean aurreikusi arau-hauste oso larriengatik, 6.001 eta 24.000 euro bitarteko isunaren zigorra inposatuko da eta, bere kasuan, puntuen ala sailkapen postuen galera edota kategoriaz ala mailaz jaistera. Jarrera horietan adingabe bat tartean dagoenean, edota arau-haustea errepikatzen denean, diruzko zigorra hautazkoa izango da, horrela, zigorra 24.001 eta 50.000 euro bitarteko isuna izango da.

b) Arautegi honetako 37. artikulua bigarren ataleko a), b) eta c) hizkien arabera aurreikusi arau-hauste larriengatik, ohartarazpen publikoaren zigorra inposatuko da eta, bere kasuan, lehentasuna edota izaera osagarria izanik, 1.500 eta 6.000 euro bitarteko isunaren zigorra. Lehen aipatu legez kanpoko arau-haustea bigarren aldiz errepikatzean, jarrera hori arau-hauste oso larritzat hartuko da eta 6.001 eta 24.000 euro bitarteko isunaren ezarpenerako bidea emango du eta, bere kasuan, puntuen ala sailkapen postuen galera edota kategoriaz ala mailaz jaistera.

c) Hirugarren arau-haustea egitean, diruzko zigorra hautazkoa baino ez da izango, horrela, zigorra 24.001 eta 50.000 euro bitarteko isuna izango da.

### **40. Artikulua .-**

1.- Kirol txapelketen antolaketa arloan ardurak dituzten teknikari, epaile -arbitro, eta kirol lizentziaren jabe diren gainerako pertsona, zuzendari ororen kasuan, zigorrak ondorengoak dira:

a) Arautegi honetako 37. artikulua lehenengo ataleko b),

c), d), e), f), g) eta j) hizkien arabera aurreikusi arau-hauste oso larriengatik, kirol karguak betetzeko behin-behineko gaitasungabetzearen ala bi eta lau urte bitarteko eperako kirol lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isunaren zigorrak inposatuko dira. Jarrera horietan adingabe bat

tartean dagoenean, edota arau-haustea bigarren aldiz errepikatzen denean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

b) Arautegi honetako 37. artikulua lehengo ataleko h)

eta i) hizkien arabera aurreikusi arau-hauste oso larriengatik, bi eta sei urte bitarteko eperako kirol karguak betetzeko behin-behineko gaitasungabetzearen ala kirol lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isunaren zigorrak inposatuko dira. Jarrera horietan adingabe bat tartean dagoenean, edota arau-haustea bigarren aldiz errepikatzen denean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

c) Arautegi honetako 37. artikulua bigarren ataleko a),

b) eta c) hizkien arabera aurreikusi arau-hauste larriengatik, ohartarazpen publikoaren ala hiru hilabete eta bi urte bitarteko epean federazio lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 1.500 eta 3.000 euro bitarteko isunaren zigorrak inposatuko dira. Lehen aipatu legez kanpoko arau-haustea bigarren aldiz errepikatzean, jarrera hori oso larritzat hartuko da, horrela, bi eta lau urte bitarteko eperako kirol karguak betetzeko gaitasungabetzearen ala kirol lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isunaren ezarpenerako bidea emango du. Hirugarren arau-haustea egitean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

2.- Pertsona fisikoek ala juridikoek, Arautegi honetan arau-haustea kontsideratzen diren jarrerak erakusten dituztenek, federazio lizentzia edota baliokidea erabilgarri izan gabe, baina zerbitzuak emanaz ala Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.

Federazioaren izenean jardunez, atxikitzen zaizkion kirol klubak ala erakundeen izenean edota Euskadiko federazioko lizentziaren jabe den beste kirolari baten ala oro har, Euskadiko kirol jarduerarekin loturiko edozein pertsonaren zein erakunderen izenean, ez dute kirol lizentziarik ala baliokiderik eskuratu ahal izango, ezta kirol lizentziatik eratorritako eskubideekin kontatu ere, ezarri zigorraren iraupenari dagokion epean.

#### **41. Artikulua .-**

1.- Medikuen eta osasun langileen kasuan, ondorengo zigorrak ezarriko dira:

a) klubetako eta taldetako medikuek, hala nola federazio lizentziaren ala baliokidearen jabe izanik osasun funtzioak betetzen duten gainerako langileek, Arautegi honetako 37. artikulua lehengo ataleko c), e), f), g) eta j) hizkien arabera aurreikusi jarreraren bat erakustean, bi eta lau urte bitarteko epean federazio lizentzia kentzearen zigorra hala nola 6.001 eta 24.000 bitarteko isun ekonomikoaren zigorra jasango dute. Jarrera horietan adingabe bat tartean dagoenean, edota arau-haustea bigarren aldiz errepikatzen denean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

b) Kirolarien medikuek, klubetakoek eta taldetakoek hala nola kirol lizentziarekin ala baliokidearekin funtzioak betetzen dituzten gainerako langileek, Arautegi honetako 37. artikulua lehena ataleko h) eta i) hizkien arabera aurreikusi jarreraren bat erakustean, lau eta sei urte bitarteko epean lizentzia kentzearen hala nola 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isun ekonomikoaren zigorra jasango dute. Jarrera horietan adingabe bat tartean dagoenean, edota arau-haustea bigarren aldiz errepikatzen denean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

c) Kirolarien medikuek, klubekoek eta taldetakoek hala nola kirol lizentziarekin ala baliokidearekin funtzioak betetzen dituzten gainerako langileek, Arautegi honetako 37. artikulua bigarren atalean aurreikusi arau-hauste larriengatik, ohartarazpen publikoaren ala hiru hilabete eta bi urte bitarteko epean federazio lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 1.500 eta 3.000 euro bitarteko isunaren zigorrak inposatuko dira. Lehena aipatu legez kanpoko arau-haustea bigarren aldiz errepikatzean, jarrera hori oso larritzat hartuko da, horrela, bi eta lau urte bitarteko eperako kirol karguak betetzeko gaitasungabetzearen ala kirol lizentzia kentzearen eta, bere kasuan, 3.001 eta 12.000 euro bitarteko isunaren ezarpenerako bidea emango du. Hirugarren arau-haustea egitean, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan dagokion diruzko zigorra erantsiko da.

2.- Medikuek – osasun funtzioak betetzen dituzten langileek, Arautegi honetan arau-haustea kontsideratzen diren jarrerak erakusten dituztenek, federazio lizentzia edota baliokidea erabilgarri izan gabe, baina zerbitzuak emanez ala Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.

Federazioaren izenean jardunez, atxikitzen zaizkion kirol klubak ala erakundeen izenean edota Euskadiko Federazioko lizentziaren jabe den beste kirolari baten ala oro har, Euskadiko kirol jarduerarekin loturiko edozein pertsonaren zein erakunderen izenean, ez dute kirol lizentziarik ala baliokiderik eskuratu ahal izango, ezta kirol lizentziatik eratorritako eskubiderik ere, ezarri zigorren iraupenari dagokion epean.

3.- Aurreko atalean xedatuari eta Arautegi honetan aurreikusi jarreraren arabera eskatzea dagozkion erantzukizunei utzi gabe, diziplinazko organoek dagozkion elkargo profesionalen jakinaren gainean jarriko dituzte osasun funtzioak betetzen dituzten langileen jardura ezberdinak.

#### **42. Artikulua .-**

Diziplinazko organoak, doping arloan inposatzen diren zigorrak erabakitzeko orduan, ondorengo irizpideen arabera jardungo dira.

a) Kirolariak arau honetan aurreikusi arau-hauste hauetako bat lehena aldiz egiten duenean inposatuko zaizkio, proportzionaltasunaren irizpideari jarraiki, dagokion artikuluan xedatu zigorrak, zirkunstantziak kontuan hartuta.

Zirkunstantziak eta zigorraren maila erabakitzeko erabiliko dira, edozein kasutan, Munduko Antidoping Kodean xedatu irizpideak.

- b) Gehigarri modura, eta Arautegi honetan erantzukizunetik libratzearen inguruan xedatuari jarraiki, zigorraren maila kasu bakoitzari dagokion proportzionaltasun irizpidea eta zirkunstantziak kontuan hartuta erabakiko da, zehazki eraginiko kalteen inguruko intenzionaltasuna, ezagutza eta bere funtzioen erantzukizun maila, baita erantzukizuna neurtzeko erabilgarriak izan ahal diren gainerakoak ere.
- c) Bigarren arau-hauste oso larriaren kasuan, zigorra kirol karguak betetzeko gaitasungabetzean ala federazio lizentzia betiko kentzean datza, eta bere kasuan, dagokion diruzko zigorra erantsiko da, kopuru handienaren arabera.
- d) Isunaren zigor pertsonalak, kirolarien kasuan, horiek garatu kirol jarduerarekin loturiko diru-sarrerak jasotzen dituztenean soilik inposatu ahal izango dira. Inposatu isunak betearaziko dira, ordaintzen ez direnean, derrigorrez, diru-bilketa arloan indarrean dauden arautegi xedapenetan ezarri terminoen arabera.

#### **43. Artikulua .-**

Arautegi honetako artikuluetan aurreikusi zigorrak alde batera utzita, Euskadiko Triatloi Federazioko diziplinazko organoak, bere kasuan, txapelketaren ala partiduaren emaitza, zeinetan arau-haustea edota arau-haustearen partaidetza jazoko zen, aldatzeko bere jardueraren inguruko bere iritzia eman ahal izango du. Horretarako, dagozkion zirkunstantziak aztertuko dituzte, eta edozein kasutan, Arautegi honetan xedatu doping arloko arau-haustek egin dituztenen emaitzak aldatzeko asmotan erakutsitako parte hartze erabakigarria ere bai.

#### **44. Artikulua .-**

1.- Diziplinazko erantzukizunaren erabateko iraungipenerako arrazoiak dira zigorraren konplimendua eta arau-haustearen preskripzioa.

2.- Erantzukizunaren iraungipenerako arrazoa da, kirolean dopinga eragiten duten substantzia ala metodo debekatuen erabilera hornitzen, errazten ala bideratzen dituzten pertsona ala klub antolatuak hautemateko, kokatzeko eta eskumeneko organismoen jakinaren gainean jartzeko kolaborazioa partziala.

#### **45. Artikulua .-**

1.- Arau-hauste oso larriak hiru urte barru preskribituko dira eta larriak berriz, bi urte barru. Arau-hauste oso larriengatik inposatu zigorrak hiru urte barru preskribituko dira eta arau-hauste larriengatik inposatuak, bi urte barru.

2.- Arau-hausteen inguruko preskripzio epea arau-haustearen egunetik kontatzen hasiko da. Preskripzioa etengo da, interesdunak horren berri izanik, prozedura zigortzailea hasten denean; preskripzio epea berriro hasiko da espediente zigortzailea hilabete baino gehiagoz eteten denean, balizko arduradunari egotzi ezin zaion arrazoa dela medio. Aurrekoa horrela izanik,

preskripzioaren etenaldia mantenduko da prozedura eteten denean, delituaren aztarnak antzematen direnean edota diziplinazko organoak jarduera horiek bide penalaren arabera tratatzen direnean, jarraian berriz hasteari utzi gabe, hala balegokio.

3.- Zigorren preskripzio epea zigorraren inguruko ebazpena finkoa izaten den hurrengo egunetik kontaktzen hasiko da. Preskripzioa etengo da, interesdunak horren berri izanik, betearazteko prozedurarena, eta epea berriro beteko da, hura hilabete baino gehiagoz eteten denean, arau-hausleari egotzi ezin zaion arrazoia dela medio.

4.- Era berean, kolaborazioagatik zigorraren iraungipena dakarren prozedura indarrean jartzean aurre-inskripzio epea eten egingo da, eta berriro martxan jarriko da, eman gabe hura amaitu eta bere ebazpena eman denetik hilabete pasatu denean.

### **XIII. KAPITULUA**

#### **DOPING KONTROLAREN INGURUKO DATUEN TRATAMENDUA**

##### **46. Artikulua .-**

1.- Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian. Federazioan doping kontrolaren funtzioak betetzen duten langileek eta Federazioko diziplinazko organoko kideek konfidentzialtasuna eta sekretua gorde beharko dituzte, bere lanaren bidez ezagutzen dituzten auzi ezberdinen inguruan.

2.- Bere funtzioak garatzean lortu datuak, txostenak ala aurrekariak doping kontrolaren helburuetarako soilik erabili ahal izango dira eta, bere kasuan, administrazio arau-haustea ala delitua eratuko luketen jarduerak salatzeke.

##### **47. Artikulua .-**

1.-Doping kontrolen inguruko datuak eta fitxategiak igorri ahal izango dira, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan aurreikusi terminoen arabera, Euskadi, Espainia eta Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian. Federazioko organismo publiko ala pribatuetara, zeinek kirol esparruko dopingaren aurkako borrokan partaide izango diren.

2.- Euskadiko Triatloi Federazioan adskribitu pertsona orok, federazio lizentziaren jabe izateagatik, eragiten dioten datu pertsonal guztien tratamendua baimentzen du. Baimen horren arabera, Euskadiko Federazioko

antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.

Federazioak datuen titularraren baimenarekin kontaktzen du, dopingaren aurkako borrokan parte hartzen duten beste pertsona ala erakunde batzuentzat horiek eskuragarri jarri ahal izateko, betiere datu horien berri ematea dopingaren prebentzioarekin, kontrolarekin ala zigorrarekin lotuta dagoenean.

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

### **Lehena.-**

Epeak kontatzeko xedeetarako udalerriko egutegi ofizialean xedatua jarraituko da, zeinetan dagokion Euskadiko Triatloi Federazioaren egoitza aurkituko den.

### **Bigarrena.-**

Antidoping Arautegi honetako arau erreferentziak eta adierazpenak, egun indarrean daudenen, etorkizunean hauek ordeztuko lituzketenen edota lehendik indarrean daudenak arautegi hau indarrean jartzean garatu ala osatu ahal izango lituzketen beste haien ingurukoak dira.

### **Hirugarrena.-**

Euskadiko Triatloi Federazioko Antidoping Arautegi hau euskeraz eta gazteleraz argitaratu da. Hizkuntza batean ala bestean argitaratu arautegien artean desadostasunak ala ezberdintasunak aurkitzen badira, gaztelerazko bertsioa hobetsiko da.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

### **Lehena.-**

Arautegi hau indarrean jarri aurretik indarrean jarri diren dopingaren inguruko antidoping eta diziplina prozedurak, aurreko arautegiaren arabera zuzenduko dira, interesdunarentzat onuragarriagoak gertatzeagatik arautegi honetatik hautatu diren alderdi haien kasuan izan ezik.

## **Bigarrena.-**

1.- Euskadiko Antidoping Agentzia eratu eta bere Erabilera Terapeutikoak Baimentzeko Batzordea (COVAUT) martxan jarri arte, Federazioko Antidoping Batzordeak bere gain hartuko du kargua, horrela, Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.

Federazioko Erabilera Terapeutikoak Baimentzeko Batzordea (CAUT) ordeztuko du, aurkeztu erabilera terapeutikoaren baimen eskaerak jasotzea, aztertzea eta ebazte abere ardura izanik, baita dagozkion xedeetarako erabilera adierazpenak eta erabilera terapeutikoaren baimenak erregistratzea ere, arautegi honetan aurreikusiarri jarraiki, beste erakunde batzuek emango zituztenak.

2.- Federazioko Antidoping Batzordeak, CAUT bezala jarduten duenean, aholku berezia eskatu ahal izango die AUT eskaera bereziarekin loturiko zirkunstantziak aztertzeko egokitzat jotzen dituen medikuei ala zientzialariei, bereziki kirolari minusbaliatuen kasuan.

3.- AUT bat lortzeko eskaera, kirolariak aurkeztu beharko du Antidoping Batzordeak ezarritako eta argitaratutako datu-orriaren arabera.

4.- Antidoping Batzordearen aurrean eginiko eskaeraren aurkezpen epea, gutxienez, hogeita hamar (30) egunekoa da, kirolariak txapelketa batean parte hartzeko ala tratamendu batekin hasteko dagokion onarpena behar izan aurretik, behar bezala bermatu larrialdiko kasuetan izan ezik.

5.- Antidoping Batzordearen aurrean aurkeztu AUT eskaerarekin batera ondorengo dokumentazioa ekarri beharko da:

a) Patologiari dagokion substantzia ala debekatuaren inguruko mediku adituaren adierazpena, tratamenduan substantzia ala metodo debekatu hori erabiltzeko beharra hala nola gaixotasuna tratatzeko medikazio baimendua erabili ezin izateko arrazoiak bermatuko dituenak.

b) Patologiari dagokion substantzia ala metodo debekatuaren inguruko mediku adituaren agindu adierazpena, zeinetan dosia, maiztasuna, substantzia ala metodo debekatuaren dosia, maiztasuna, hartzeko modua eta iraupena zehaztuko diren.

c) Osasun txostena, kirolariari egin zaizkion diagnosi proba guztien emaitza guztiak dakartzana.

6.- AUT baimenaren eskaera kirolariak ala taldeek eskatuko dute, espresuki eskaeraren datu-orrian xedatzen diren moduak kontuan hartuta.

7.- Eskaera jasotzean, CAUT hura aztertzeraz eta balioztatzeraz pasatuko da, hura behar bezala ebazteko egokitzat jotzen dituen txosten medikuak eta osasun txostenak eskatu ahal izanik. CAUT-ek eskatzen dituen txosten ala azterketa horiek kirolariak ordaindu beharko ditu.

8.- AUT horiek ondorengo irizpideen arabera emango dira:

- a) Kirolaria bere osasuna nabarmenki kaltetu dela ohartzean, substantzia ala metodo debekatua gaixotasun larri ala kroniko baten tratamenduan zehar hartu ez izategatik.
  - b) Substantzia ala metodo debekatuaren erabilera terapeutikoak errendimenduaren hobekuntza osagarria eragiten ez duenean, gaixotasun bat tratatu ondoren Osasuna berreskuratzean aurreikusi litekeena izan ezik.
  - c) Ez da operazio terapeutiko komenigarria kontsideratuko hormona endogeno baten maila normalak baino baxuagoak hedatzeko substantzia ala metodo debekatu baten erabilera.
  - d) Substantzia ala metodo debekatuaren erabilerari dagokionez aukera terapeutiko eraginkorrik erabilgarri ez dagoenean.
- e) Substantzia ala metodo debekatua erabiltzeko beharra ezin izatea ondorioa, hein batean ala bere osotasunean, substantzia ala metodo debekatuaren aurretiko erabilera ez terapeutikoarena.

9.- Substantzia debekatuak erabiltzeko baimenak soilik emango dira, aipatu medikamentu eta osasun produktu horiek farmazia produktuen inguruko indarrean dauden lege aurreikuspenak eta medikamentuen inguruko inportazio, esportazio eta ikuskaritzaren bermeak betetzen dituztenean.

10.-Prozeduraren inguruko CAUT –en ebazpena jakinaraziko zaio kirolariari, administrazio prozedura komunaren legerian xedatuari jarraiki, eskaera jasotzen denetik hurrengo hogeita hamar egunen barruan.

11.-AUT baimenak, oro har, kirolariarengana heltzean soilik jartzen dira indarrean. Hala ere, atzeraeraginezkoak izan ahal dira ondorengo kasuetan:

a) CAUT-en esanetan behar bezala egiaztatzen denean beharrezkoa izan dela larrialdiko tratamendua ala gaixotasun larri baten tratamendua. Kasu horretan, eskaera tratamendua agintzen den hurrengo hamar lanegunen barruan aurkeztu beharko da, eta eskaera horrekin batera, larrialdi egoera egiaztatuko duen dokumentazio guztia igorri beharko da.

b) Behar bezala justifikatutako ezohiko zirkunstantziak direla-eta, eskatzaileak beharrezko denborarekin ala aukerekin kontatu izango ez balu aurkezteko, edota CAUT-ek aztertzeko, eskaera bat antidoping kontrolaren aurretik.

12.- Kirolariak erabilera adierazpena egin beharko du, Antidoping Batzordeak xede horretarako indarrean jarritako eta argitaratutako datu-orriaren bidez, xede horretarako beharrezko osasun dokumentazioa ekarri behar izanik.

13.- Kirolariak erabilera adierazpena aurkeztu ahal izango du, espresuki eskaeraren datu-orrian xedatzen diren moduak kontuan hartuta.

14.- Federazioko Antidoping Batzordearen ebazpenek, CAUT bezala jardutean, AUT bat ukatzeko orduan, federazio bidea agortzen dute eta horien aurka

errekurtsoa jarri ahal izango da bere jakinarazpena egiten denetik hurrengo hamar egunen barruan, interesdunak eta Euskadiko Triatloi Federazioek UFDV-EKFB-ko Euskadiko Kirol Arbitrajearen Auzitegiaren aurrean planteatuko duten prozedura arbitralaren bidez.

#### **Hirugarrena.-**

Euskadiko Antidoping Agentzia eratu bitartean, Antidoping Arautegi honetako 25. artikuluan aurrekusiaren xedeetarako, espediente zigortzaileari dagokionez ezarri epea amaitu denean, ebazpena ematera iritsi gabe, Euskadiko kirol federazioak arautzeko urtarilaren 31ko 16/2006 Dekretuaren 20. artikuluan aurreikusia aplikatuko da.

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratzen dira Antidoping Arautegi honetan aurrekusiarekiko aurka dauden eta lehendik indarrean dauden federazioko arautegi guztiak. Espresuki adierazten da orain arte indarrean egon diren federazioko arautegietako ala gainerako arautegietako doping arloko federazioko diziplina - zigor esparruaren inguruko aurreikuspenak (arau-haustekak, zigorrak, diziplinazko prozedurak, etab.) indargabetuta geratzen direla, Antidoping Arautegi honetan aurrekusiaren arabera. Hori horrela, inposatzen diren doping zigorren konplimendu ezari dagokionez, aplikagarria izango da Euskadiko Federazioko Diziplinazko Arautegian inposatu zigorren urraketaren inguruan aurreikusia.

### **AMAIERA XEDAPENAK**

#### **Lehena.-**

Antidoping Arautegi honetan aurreikusi gabeko alderdi orotan, ordezkotza izarekin nagusituko dira Euskadiko dopingaren aurkako borrokaren arloan une bakoitzean indarrean dauden arautegi xedapenak edota, horiek izan ezean, Estatukoak.

**Bigarrena.-**

Antidoping Arautegi hau indarrean jarriko da, Euskadiko Federazioko antidoping organoari eskatuko zaizkio eta behar bezala erregistratuko dira, bere kasuan, Euskadiko Antidoping Agentzian.

Federazioko Batzar Nagusiaren baitan onartua izatean, Eusko Jaurlaritzako Kirolen Zuzendaritzak onartzean eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatua izatean.